

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria, idazlea

“Hitzak josiz noa osatzen nire etxea”

Beste urte askotan egiten zen bezala, 1997an, Irun Hiria Saria antolatu zen. Urte hartako irabazleetako bat Yolanda Arrieta Malaxetxebarria izan zen *Jostorratza eta haria* liburuarekin. Orain lan horrek argia ikusi du berriz Alberdania argitaletxearen eskutik, idazleak garai hartan esan zuena berresteko: “hitzak josiz noa osatzen nire etxea”.

Liburuaren portada hari koloretzuz jositako oihal bat da. Berruko lerroetan bizitza-joskintzari buruzko istorio ederrak topatuko ditu irakurleak. Eta ondo josteko gomendioak, neurri askotako patrioiak, eta beti galtzen diren detaile politak, eta botoiak eta ondo lotzeko egin behar diren beren zuloak, eta poltsikoak, mahukak, tolesak eta alozak (ez dakizue zer diren?) eta adabaki asko, tamaina askotakoak, saretua edota zulatua dagoenari (minei eta zauriei ere) josten zaizkion oihal zatiak.

Galtzar dagoen hiztegia irakurriko dute gure begiek, eta agian, lan horren helburua horixe ere bada, belaunaldi berrientzat memoria historiko zatitxo bat berreskuratzea, betiere modu poetikoan.

Bizitza oihal bat da. Idazleak berak diosku: “Demagun bizitza oihal bat dela. Demagun oihal horrekin neurriko jantziak jos daitezkeela. Demagun *Jostorratza eta haria* hauxe dela: ama batek jaiotzear dagoen alabari oparitzen dion josteko eskuliburua, patrioiak eratuz, txatalak batuz eta urradurak errepasatuz neurriko soinekoak molda ditzan bizitzaren oihalean”.

Bizitzaren oihal horretarako patrioiak neurtu ditu hitz ederrekin Yolanda Arrieta idazleak, batzuetan galdera garrantzitsuak planteatuz, hala nola: “Zer gara? Berez gurekin datorrena ala

bizitzan zehar egiten goazena? Bien nahastea, agian?”.

Berak aitortu duen moduan galdera bi horien inguruan mugitu da lan hau idazterakoan; “alde batetik, jostorratzez eta hariez josten goazen historia-istorio multzoa garelako; baina, era berean, istorio-historia horien haziak jaiotzen garenean gurekin datozelako, bi begi, bi hanka, bi beso eta bihotz bat datozen bezalaxe. Istorio-historia honen muina, beraz, hauxe da: ama batek jaiotzear dagoen alabarentzat kontaturiko istorio-historia. Istoria zergatik? Oinarri erreala eduki arren, fikzioa delako. Historia zergatik? Galbahe pertsonalez osatua egon arren, Historiaurretik abiatu arren, batez ere azken mendeari ematen diolako liburuak bira”.

Liburuaren hasieran Iratxe Retolaza adituak izkiriaturiko *Patrioiak neurtzeko eta bihurtzeko manierak* izeneko hitzaurrea dator, eta bertan dio; nobela, mugako eremu literarioetan mugitzen dela; badu narratziotik, badu poesiatik, badu pentsamendutik, badu ahozkotasunetik, badu mitologiatik...

Badago narratzaile bat, ama narratzailea, komunitateko eta familia askotariko ahotsak dakartzana, eta berari esker, ama eta amona ezagutuko ditugu (zein tarte ederrak elkarrizketetan antolatu diren kapituluak), haurtzaroko kontuak, eta beste-lako oihartzunak ere. Ahots horiek josita datoz ahozkotasunarekin, ahots-sare batekin. Ederra da honela hasten den zatia: “Neure bizitzan zehar jasotako adabaki batzuk...”.

–Noiz erabaki zenuen edota zergatik erabaki zenuen *Jostorratza eta haria* liburu berrargitaratu behar zenuela? Denbora-oihal berri bat egin behar zenuen?




–Alberdania argitaletxearen erabakia izan zen, haiengandik jaso nuen gonbita. *Jostorratza eta haria* liburuak 1997ko Irun Hiria saria jaso zuen eta Kutxa Fundazioak argitaratu zuen garai hartan halaxe egiten zelako, baina argitalpen haiek ohiko zirkuituetatik kanpo geratzen ziren eta horregatik, handik urte batzuetara, Kutxa Fundazioak argitaletxe ezagun batzuekin sinatu zuen akordioa lan sarituak argitaratzeko, eta halaxe jarraitzen dute gaur egun ere. Baina artean ez zen halakorik, eta 2001ean berrargitaratu zuen Alberdaniak liburu, gazte literaturako Ostiral Sailean. Harrezkero, makina bat bider aipatu izan didate liburu hark ez zuela sail hartan joan behar, helduen literaturan baizik, eta erabaki hura zuzentze aldera edo dator 2025eko berrargital-

pen hau. Honenbestez, esan daiteke denbora-oihalak aukera berria eskaini digula lanari Iratxe Retolaza idazlearen hitzaurrea josteko eta Ainara Azpiazu Axpiren azala brodatzeko.

–Urteak zuntza dira. Handik hona zer bilakatu da berritu duzun zure lan hori?

–Ez dut testurik berritu, hizkuntza aldetik egokitzapen txiki batzuk egin ditugu eta azal berria eta hitzaurrea gehitu, besterik ez. Niretzat oso garrantzitsua zen bere horretan uztea, liburu bat, besteak beste, gertaera bat ere badelako, eta gertaera guztiak euren testuinguruetan irakurri eta ulertu behar direlako. *Jostorratza eta haria* eratu zen bi indar –edo gertaera– handi josteko premia sentitu nuelako: aitaren heriotza eta alabaren etorrera.



–Liburu berriz orraztean eta irakurtzean, gauza asko esan bari utzi dituzula sentitu duzu?

–Esandakoak esanda daude eta, aipatu dudan bezala, testuinguru baten fruitu dira. Testuinguru hartako ahotsak berriro aditzean garai batera salto egiteko aukera izan dut eta oroimena berpiztu zait. Honenbestez, liburuaren orrazketa-prozesuan ez naiz aritu hainbeste orduko hura “berritzen”, baizik eta lan hartan neure burua aurkitzen –edo berraurkitzen– eta topatu dut; eta, ondorioz, gauza berriak egiten jarraitu dut. Irakurleak ariketa bera egin dezake.

–Azken orriotan eskerrak emateko beharra izan duzu. Denbora-oihal mugagabeari esker?

–Eskerrak ematea entrenamendu moduko bat da, josita dagoena birjosteko, hautsita dagoena adabakitzeko eta faltan dagoenaren patrioiak ideatzeko. Eskerrak ematea neure burua birkokatze gogorapen moduko bat ere bada: denbora-oihal mugagabean ahalmena daukan nanopartikula bidaiari bat naizela ez ahazteko.

Juanra Madariaga

Releído ahora, años después, y en una traducción nueva y significativamente diferente, el impacto de filósofo estilete que me ha procurado *Los muertos y los vivos* (*The Dead and the Living* en el original) de Sharon Olds, que en su día recibió el Premio del Círculo Nacional de Críticos de Libros y formó parte de la prestigiosa Selección de Poesía Lamont, ha sido contundente y va a ser, me temo, duradero. La etapa vital, el momento emocional del lector, cuenta, como es lógico. La primera lectura fue en la edición de Bartleby, que manejé en un préstamo de alguna biblioteca pública durante los años de universidad y que compré después de segunda mano en un rastrillo de Ma-

drid. Bilingüe también, como ésta de Visor, en versión (y aquella sí, con prólogo) de Juan J. Almagro Iglesias y Carlos Jiménez Arribas. La de ahora, a cargo del poeta Víctor Rodríguez Núñez, en colaboración con Katherine M. Hedeem, es excelente, difícilmente superable. Junto con aquella primera de la editorial Bartleby, del 2006, ya descatalogada (hasta donde sé y he podido buscar y comprobar, son las dos traducciones disponibles) también lo era y no menos que ésta; eso viene a confirmar que no hay que conformarse con lo

ya traducido, por muy buena versión que sea la que ya existe. Echo de menos en el de Visor (que está publicando buena parte de la obra de Olds) alguna nota de aclaración respecto del libro, de su por qué, de las motivaciones de la poeta y de qué se movía social y políticamente en aquellos años de su publicación, primeros ochenta, en EE. UU.

Uno de los elementos más distintivos de Olds es su interés por los aspectos más íntimos de la vida humana: la visceralidad de los sentimientos, la sexualidad, lo

corporal, la muerte o la violencia. Libro extenuante pero no oscuro de estilo seco pero profundamente humano. Hay belleza en lo sombrío igual que hay belleza en la muerte y Olds es una poeta de verdad y no parece asustarle alejarse de las convenciones, explorar temas complejos y a veces incómodos de manera muy honesta. En los poemas de *Los muertos y los vivos* los temas principales, estrechamente apegados, son la reflexión sobre la muerte, las dinámicas familiares y las tensiones dentro de su propia historia personal.

Olds utiliza las palabras como herramientas para transformar el dolor en una experiencia sensorial.

Aitor Francos

Kilos de crudeza

